



2002/12/18ko prentsa-oharra

HERIOTZEN ESTATISTIKA (HERE)2002ko bigarren hiruhilekoa

2002KO BIGARREN HIRUHILEKOAN, HERIOTZAK GUTXITU EGIN DIRA, URTEKO LEHEN HIRU HILABETEAREN ALDEAN

2002ko apiril, maiatz eta ekainean, 4.227 pertsona hil ziren; horietatik % 52,2 gizonezkoak ziren, eta % 47,8 emakumezkoak.

2002ko bigarren hiruhileko honetan 4.227 heriotza izan dira, hau da, aurreko hiru hilean baino % 18,9 gutxiago. Izan ere, neguan izan ohi dira urte osoko hilkortasun-zifrarik handienak. Lurraldeka, Araban 478 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.357, eta Gipuzkoan 1392.

Heriotza-kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren: 1.312 pertsona hil ziren kausa horrengatik (% 31); haren atzetik, bigarren heriotza-kausa gisa, tumoreak ageri dira, 1.291 heriotza eragin baitzituzten (% 30,5). Hirugarren tokia arnas aparatuko gaixotasunek hartu zuten, neguko hil haietan 391 heriotza eragin baitzituzten (% 9,2).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

2002ko bigarren hiruhilekoan gertatukoaren artean, 15 heriotza urtebetetik beheragoko haurrei egokitu zitzaizkien: 9 neskatori eta 6 mutikori.

Hazkunde begetatiboak zeinu positiboa izan zuen 2002ko bigarren hiruhilekoan, 354 pertsonako biztanle-gehikuntzarekin. Arabak eta Gipuzkoak saldo positiboak izateaz gain (176 eta 162 pertsonakoak, hurrenez hurren), Bizkaian lehenengo aldiz hazkunde begetatibo positiboko hiruhileko bat izan da, 16 pertsonako hazkundera besterik izan ez bada ere.

Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa

	2002ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 1. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.227		5.212		4.164	
Gizonezkoak	2.206	52,2	2.741	52,6	2.229	53,5
Emakumezkoak	2.021	47,8	2.471	47,4	1.935	46,5
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.227	100,0	5.212	100,0	4.164	
Tumoreak	1.291	30,5	1.404	26,9	1.324	31,8
Zirkulazio-sistema	1.312	31,0	1.562	30,0	1.304	31,3
Arnas sistema	391	9,3	704	13,5	356	8,5
Txegoste-sistema	191	4,5	259	5,0	230	5,5
Istripuak	159	3,8	148	2,8	155	3,7
Gainerako gaixotasunak	883	20,9	1.135	21,8	795	19,1
GIZONEZKOAK	2.206	100,0	2.741	100,0	2.229	
Tumoreak	795	36,0	909	33,2	854	38,3
Zirkulazio-sistema	600	27,2	722	26,3	596	26,7
Arnas sistema	236	10,7	382	13,9	217	9,7
Txegoste-sistema	93	4,2	154	5,6	127	5,7
Istripuak	113	5,1	100	3,6	108	4,8
Gainerako gaixotasunak	369	16,7	474	17,3	327	14,7
EMAKUMEZKOAK	2.021	100,0	2.471	100,0	1.935	
Tumoreak	496	24,5	495	20,0	470	24,3
Zirkulazio-sistema	712	35,2	840	34,0	708	36,6
Arnas sistema	155	7,7	322	13,0	139	7,2
Txegoste-sistema	98	4,8	105	4,2	103	5,3
Istripuak	46	2,3	48	1,9	47	2,4
Gainerako gaixotasunak	514	25,4	661	26,8	468	24,2

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganuza Zabalo Tel.: +34-945 017 534. Faxa: +34-945 017 501 Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--